



Ateraldi jai giroko batekin hasten da kontakizuna, bost neska-mutiko eramango dituen ustekabeko abentura bat bizitzera. Abentura horretan proban jarriko dute adiskidetasuna, imaginazioa eta ez-ohiko egoeren aurrean erantzuteko modua. Dena gertatzen da Donostiako Aste Nagusian, Kontxako hondartza eta Santa Klara uhartearen artean: Urkok, Ainhoak, Malenek, Denisek eta Felixek Piraten abordaiaren jaia bizi nahi dute hurbiletik. Hain hurbiletik, badiako gabarroiaren gainean bukatu baitute uhartera bidean. Uharte bat da Santa Klara, dena misterioz, eta altxorrez betea, eta gure neska-mutikoek babestu behar dutena.

Hori da, hain zuzen, uhartean bizi den pertsona bakarrarekin, 'Soinu' izeneko gizon batekin, egiten duten hitzarmena. 'Soinu' nolabaiteko Robinson bat da, itsas giroko dozenaka historia gordetzen dituen uharteko arroka eta leize barru haietan. Historia berriak kontatzen dizkionari bereak kontatzen dizkio, eta hartara, historia berriak metatzen ditu. Hori baita bere egitekoa: Santa Klara uhartea historiaz eta elezaharrez beteta gordetzea, eta era guztietako harrapariak aparte edukitzea.

Historia bat dago hasiera-hasieratik atentzioa ematen diona: Felixen bizikizun propioez osatutakoa. Izan ere, antz handia du bere historia propioarekin. Horregatik uzten dio berarekin bizitzen gera dadin.

Era horretan, Felix uhartean bizitzen jarrita eta adiskideak gordeka hara joanez, hasieran, bihurrikeria xalo bat zena beldurraren aurreko desafio bat bihurtzen da: desanimoen kontra, elkartasunaren alde. Uharteko talaiatik begira, gauza bat ikasi dute, behintzat, marinel onak direla maniobrak egiten dakitenak, timoi kolpeak ematen dakitenak itsaso haserrearen aurrean, eta beharrezkoa bada norabidea aldatzen dakitenak. Haiek dira marinel onak.

Seve Calleja Zamoran jaio bazen ere, Bilbon bizi izan da bizitza guztia, eta bertako institutu batean aritu da literaturako irakasle. Hasieran, poesia eta helduentzako ipuinak idazten hasi zen. *Zurgai* poesia taldean parte hartu zuen, eta hainbat sari jaso ditu narraziogintzan: *Ignacio Aldecoa* eta *Gabriel Aresti*, ipuinena, eta *Pio Baroja* nobela sariaren akzesit bat. Baina bere jardun nagusia haur eta gazte literaturan egin du, bai idazle moduan baita irakurle, ikerle eta kritikari moduan ere. Artikulu, hitzaldi eta estudio asko idatzi ditu gai horren gainean. Arlo horretan idatzitako liburuekin ere sari ugari jaso ditu, besteak beste: *Lizardi* saria 1985ean eta *Leer es Vivir* 1997an.